



ACT- MC-2018/0067

## KONTRATAZIO MAHAIAREN AKTA

**Espedientea, gakoa eta bileraren gai-zerenda:** GI-627 errepidean (29,600 KP) oinezko ibilbidean, trafikoa mantsotu eta segurtasuna hobetzeko neurriak (1-SV-9/2018). Asfaltos y Construcciones Morga, SL enpresaren Lizitatzailen Erregistroko izen ematea aztertzea.

**Eguna:** 2018ko urriaren 16a

**Hasiera/amaiera ordua:** 9:00/9:15

**Tokia:** Bide Azpiegituretako Departamentuaren 2. gela (Miramon pasealekua, 166.)

### Bertaratutakoak:

**Mahaiburua:** Agustin López-Doriga Fernández, Bide Azpiegituren Proiektuetako eta Eraikuntzako Zerbitzuko burua.

**Bokalak:** Jon Ander Arrieta Berasarte, Ogasun eta Finantza Departamentuko Kontuhartzailatza eta Auditoretza Zerbitzuko ordezkaria.

Elixabete Martinez Iruretagoiena, Departamentuko idazkari teknikoa.

**Idazkaria:** Miguel Fonseca de la Rosa, Kontratazio Zerbitzuko burua.

Goian aipatutako lekuan eta orduan, aurrez adierazitako kideekin, Kontratazio Mahaia eratu da Asfaltos y Construcciones Morga, SL enpresak, Erregistroko ziurtagiria aurkezteko errekerimentuari erantzuteko aurkeztu duten dokumentazioari buruz eztabaidatu eta erabakiak hartzeko.

Asfaltos y Construcciones Morga SL enpresak, errekerimenduari erantzunez Lizitatzailen Erregistroaren ziurtagiria aurkeztu du. Hala ere, inskripzio horretan gaitasuna bai, jasotzen da, baina kaudimena, berriz, ez da ziurtatzen. Pleguak kontratatzailearen profilean irailaren 4ean argitaratu ziren eta prozedurari hasiera eman, gaitasuna eta kaudimena ziurtatzeko Lizitatzailen Erregistroan izena emana edukitzeko derrigortasuna indarrean sartu bitarteko transizio epearen barruan, 9/2017 Legearen hirugarren xedapen iragankorren arabera.

Horrela, lizitazioa hori dagokien baldintza administratiboen pleguak 31.1.4) atalean diote:

4.- Puntuaziorik handiena lortu duen enpresa ez dagoenean inskribatua Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean, dokumentazio hau aurkezteko eskatuko dio kontratazio mahaiaik:

c) **Kaudimen ekonomiko-finantzarioa eta tekniko edo profesionala.** Kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatzea SPKLren 87. eta 90. artikuluetan aurreikusitako eta lizitazio iragarkian eta ezaugarrien taulako 13. atalean zehaztu bitartekoak erabiliz.

Erregistroaren ziurtagiriaren edukiari buruz eztabaidatu ondoren eta prozeduraren hasiera data kontutan hartuta, Kontratazio Mahaia erabaki du Asfaltos y Construcciones Morga, SL enpresari errekerimendu berri bat egitea, ezaugarrien taulako 13. Atalean agertzen den moduan kaudimena frogatu dezan, aurreko errekerimenduan zehaztasun hori eman ez zelako.

Eta horrela jasota gera dadin egin da Akta hau, eta berau onartu ondoren egintza amaitutzat eman da.

Donostian, 2018ko urriaren 16an

IDAZKARIA

Sin.: Miguel Fonseca de la Rosa